

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Otsailak 7, 137. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**BIXENTE
BARANDIARAN**
Bizi osoan
errementari lanetan



ATBoom!

ATBk programazio berria




HOTZ-BERO

KLIMATIZAZIOA

Maalako Errabala 33- etxebeha,
Tfnoak: 79 70 98 eta 77 04 83
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA



au munduko hiri bat da.

Munduko hiri asko bezalako da. Praga, Casablanca, Dublin, Lisboa...

Kaleetan, aiton-amonak, gizonak, emakumeak... eta begiradak.

Automobilak, bonbila elektrikoen argia, egunero bizitza... eta instantek.

Instant bateko begiradak, leku ezezagunak...



Arantza

Mutikoez eta agureek ez arabiar bat balitz bezala, dute hitzik egiten, baina zera diotso begiekin: tipiak aurpegia zapiz "Utziok niri begiratzeari ezkutaturik duen emakume eta, jo ezak berriro, Sam".

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

ARRASATE PRESS ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Jabier Ozaeta, Udalako Ingurugiroko Eskola, Juan Bautista Agorria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Ilogikaren legea

Giza konportamenduak aztertzen ditugunean, erabateko jarrera ilogikoak aurki daitezke, neurri haundi batez gizonaren beraren hauskortasuna mugatzen dutelarik. Komenientzia eta norberaren hutsuneak bidelagunik ezagunak izaten dira gizonon erabaki eta planteamenduetan. Horrela bakarrik ulertuko ditugu hainbat eta hainbat portaera barregarri.

Britania Haundiko Legebiltzarrean aurrekontuak eztabaidatzen ari zirela, nuklear errektoreen gaineko partida, milioi askoduna, pare bat minututan onetsi omen zuten biltzarkideek. Legebiltzarreko txukunketa egiten zuten emakumeentzako garbikari eta erratzen diruak aztertzea egokitu zenean, berriz,... pare bat egun joan zitzaien tirabiretan. Atzekoz aurrera jarrita diruden istorio honek agerian uzten ditu gure ahulezia eta erlatibotasuna.

Dirudienez, Estatu Batuetan, beste astiematerik ezean, eskandaloaren bitarteko suntsipena modan ipini da. Sexu-zalapartak hango hautsak harrotu omen ditu, estatubatuarrei beste gaizpidetarako ikusmena galterazi ei dielarik. Gero eta atzerakoiago bilakatzen ari den gizarte ifarramerikarra prest azaltzen da ikaragarriko muntaketa publikoa eratzeko, ikuspegi hestu batek epaituriko moralaren izenean.

Morala eta demokrazia bera arriskutan ipintzen ari dira, dudarik gabe, morala sexuari eta demokrazia boteretsuari soilik lotzen zaizkienean. Gainerako balore eta pekatuek ez omen dute lekurik ifarramerikar gizarte hipokritan. Ulertuko duzuen bezala, bost axola neri Bill Clinton lehendakariagaia Jennifer Flowersekin oheratu ote den ala ez. Bost axola, Estatu Batuetako hurrengo presidentea demokrata ala errepublikarra aukeratzten duten ere. Izan ere, Reagan batek ahalbidetutako urrats faltsuak —bizitza osoan Nancy beste ohikiderik izango ez zuen arren— edozein gizabanako hezurmamiraino lotsaz gorritzarazteko zioak bait dira. Baina ez dirudi inork epaitu behar duenik.

Ona izatera jokatzten ari den mundu baten isladapen hutsa dugu aurrekoa. Estatu Batuak ezezik, mendebal gizarte osoak akats eta erreazio anormalak bere egin ditu. Eta, ezaugarriek markatzen dutenez, behartsuenek —euren ezintasunetik— ugaltasunean igeri egiten dutenen pekatu berberak aplikatu nahian omen dabilta, erraldoi inposatzailearen irudi dirdiratsuz bat egin asmoz. Euskal Herrian ere bi aurpegitako etika nabari egiten da eguneroko harreman zailetan. Irakurri, bestela, gaurko egunkaria.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikulua
Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**MUSAKOLA
OSTATUA**

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezifio, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Akusatuak akusatzaile

Aurreko astean E.L.-k bere lagun bati Ertzantzarekin gertatutako pasadizo kafkianoa kontatzen zigun. Beste bat gehiago. Lekutan daude euskaldunon eskubideak gure herrian bertan.

Horra beste pasadizo bat: urtarrilaren 28an Bergarako entzutegian 13 lagunena kontra hasitako epaiketan, akusatuetariko bederatzik aukeratu zuten euskara deklarazioa egiteko, eta akusatzaileetatik, berriz, ertzain batek


berak ere ez. Laster bukatu ziren itzultzailearen lanak.

Euskara da errebeldena eta erdara zentzudunena? Zein da zentzuduna eta zein zentzubakoa herri honetan hizkuntzari dagokionean?

Ez daitezela behintzat txapelgorriok euskararen kontrako polizia ere bihurtu: ez egin eta ezta egiten utzi ere. Eta ez dago sobran gogoratzea arrazoiaren indarrak ez daukanak indarraren arrazoa erabili behar izaten duela. Edo?

G.P.A.

Publizitaterako arduradun berria



Publizitaterako arduradun berria izango du ARRASATE PRESSEk aurrerantzean. **Kepa Oliden** atxabaltarra arduratuko da iragarki kontuetaz; beraz, badakizue merkatariorik, harreman horietarako norengana jo.



**PINTURAK eta
PAPEREZTAPENAK**
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

Jesus M. Sanpedro Madina Dk.

**AZALEKO ETA BENEREAR
GAISOTASUNAK**

Kontsulta orduak:
Astelehena, asteazkena eta ostirala
4etatik 8etara


S. Bixente Ferrer, 4 etxabea Esk.
ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Blasetan janaria bedeinkatzeko ohiturarik baduzue?




M. Luisa Uribebarria
(Jubilatua)

Bai, bai, noski. Beti bedeinkatu izan dugu eta denetarik: goxokiak, ogia, ezitia...



Jose Mari Lasagabaster
(Jubilatua)

Gaurko gazteek ez dute, baina lehengo zaharrek bai. Etxean beti bedeinkatu izan ditugu ogia eta San Blas opilak.



Julio Velasco
(Langilea)

Ez, ez, guk paso egiten dugu. Etxean ere ez dut sekulan ezagutu ohitura hori. Kontu horietatik paso egiten dugu.



Lucia Murillo
(Etxekoandrea)

Bai, baina San Blas opilak bakarrik bedeinkatzen ditugu.



Lutxi Valderrama
(Langilea)

Ez daukagu ohiturarik eta gainera ez dut inoiz ezagutu.



Ander Elortondo
(Ikaslea)

Nik neuk, ez. Amak bedeinkatzen du, ogia bedeinkatzen du batez ere.

Beti Modari Begira

SANDRA ETA MARCO
BETAURREKOAK
2.550 Pta.

Betaurrekoen egun eguneko moda zure esku 2.550 pezetatan. Zure begiradaren kama eragingo duten Sandra eta Marco betaurreko berriak J. LARRAÑAGA OPTIKA bakarrik aurkituko dituzu. Moda eta prezioa zuretzako geru MULTIOPTICAsen optika guztietan.

J. Larrañaga
OPTIKA
MULTIOPTICAS
Betri Zuri Begira

San Pedro, 22 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradaran Erparantz, s/n - ORDIZIA

M E C A  **R A P I D**

IKUSENTZUTE BIDEZKO MEKANOGRAFIA

- 28 orduan, egunean klase bat, 200 pultsazio minutuko
- Hatzamar guztiekin idaztea
- Tekletara begiratu gabe
- Baita abiadura ikastaroak ere, minutuko 350 pultsazio arte.

**BAITA MEKANOGRAFIA
ORDENADORE BIDEZ ERE
TAKIGRAFIA**

meca-rapid

Otalora, 3-1. C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



7

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Thelma & Louise" (5-7.30-10).
- Gesalibarko jaiak: 6.30etan etxafleruen jaurtiketa, 8etan koloretako suzieren jaurtiketa, 9etan auzo-afaria bertso-lari eta trikitilariekin.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santa-maina. Gaeuz: Estella, Bergara.

8

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Thelma & Louise" (5-7.30-10).
- Gesalibarko jaiak: goizeko 11etatik aurrera haurrentzat jolasak, marrazki erakusketak eta txotxongiloak. Gaeuz, afaria eta dantzaldia Kaixo taldearekin.
- Umeentzako bideo-emanaldia, "Nire ama sorgina" arratsal-



Rugbya

- Larunbatean, arratsaldeko 4etan Garagartzako rugby-zelaian Arrasate eta Eibarren arteko partidua.

Eskubaloia

- Igandean goizeko 11tan jubeni mailan, Arrasate - La Salle Legazpia Iturripen.
- Igandean Iturripen 12.30etatik aurrera, Arrasate - Bergara.

10

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Thelma & Louise" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerias. Gaeuz: Camacho, Bergara.

11

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Thelma & Louise" (7-9.30)
- Hitzaldia: "Bertsolaritza ge-roaren aurrean", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Sukaldaritza ikastaroa, arratsaldeko 3etan San Andreseko Torrepe Elkarteak.
- Gantxilo ikastaroa, arratsaldeko 3etan AEDn.
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturriotz. Gaeuz: Puy, Bergara.

12

ASTEAZKENA

- Lizarra Elkarteak antolatuta, hitzaldia Monterronen arratsaldeko 7etan, "HIES-a: zer egin?".
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaeuz: Guallar, Bergara.

13

OSTEGUNA

- ATBko programazio berriaren aurkezpena, EPPko areto nagusian arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Estella, Bergara.

Jaiak

• Gesalibarko jaiak

Santa Ageda eguna pasatu da asteen, eta ondorioz Gesalibarko auzoan jaiak izango dituzte asteburu osoan, ez nolanahikoak gainera. Jaien hasiera ofiziala ostiral arratsaldean izango da, 6.30etan etxalderen jaurtiketaren bidez; ondoren, afaria *Murua* eta *Lizaso* bertsolariekin eta *Zabale* anaiei trikiti doinuarekin, goizaldera arteko erromeria. Larunbatean, berriz,





goiz partean haurrentzat jolasak eta Bihar txotxongilo taldearen emanaldia izango dira. Lege zaharraren agindutara, arratsalde osoan auzoko abesbatza eta trikitilariak kantari ibiliko dira auzoan zehar. Kantuan galdutako indarrak berreskuratzeke, herri-afaria eta ondoren *Kaixo* taldearekin dantzaldia. Igande eguerdian emango zaie bukaera aurtengo Gesalibarko Santa Ageda jaiari, aurrez eguerdiko 12etan meza eta ondoren, auzora hurbiltzen diren guztientzat salda eta pintxoak dastatzeko aukera.

Jaialdia

• Bertsolariak

Leintz Bertso Eskolak Andres Gabilondoren omenaldia antolatu du, otsailaren 15ean gaueko 9etan Apotzagako auzo-etxe elkartean bailarako





ATBko Show-a

Ostegunean, 7.30etan Eskola Politeknikoan

ATBko programa berria aurkezteko, datorren ostegunean, hilak 13 Eskola Politeknikako areto nagusian ATBoom saioa antolatu da. Aurkezpen saio honetara edozein herritar joan daiteke, orain arte ATB inguruan mugitu den jendeari gonbidapen berezia egingo bazaio ere.

ATBko aurkezle guztiak bilduko ditu saio honek eta bakoitzak bere programaren berri zabalduko die entzuleei. Aurkezle bakoitzak egiten duen aurkezpenaz eta bideoaz gain, ATBri buruzko informazio orokorra ere eskainiko da. Aurkezpenari jai-giroa ezarri nahian, bailarako bertsolarien laguntza izango da, baita Ruper Ordorika eta Tapia trikitilariarenekin ere. Azken bi horietan elkarrekin kantatuko dute eta azken egunotan batera entsaiatzen ari dira. Beraz, ATBko aurkezle eta programa berriak ezagutzeaz gain, Ruper eta Tapia ikusi nahi dituenak, badaki zita Eskola Profesionalean duela. Osteguna, arratsaldeko 7etan.

bertsolari gazte eta helduekin. Afarira joatea nahi duten guztiek lehen bait lehen txartelak eskuratzea komeniko litzateke, horretarako Arrasateko AEDn, Aretxabaletako BEINKEn, Apotzagako jatetxean eta betikoei eskatzea dira bidea. Azkar ibili, gastatu egingo dira eta!



Liburuak

• Eneko Agerroa

Literatura saileko nobela da Yon Etxaide-lhartek idatzitakoa, 210 orrialde eta 1.300 PTA balio du.

Gorrotoa lege eta abarren garairako bazuen ideia, 1984. urterarte ez zuen elaberririk argirik ezagutu. Garai hartako argitalpenarekin kontentu ez nonbait, autoreak denbora luzea pasa du edizio hura zuzentzen eta behar zituen eranskinak ezartzen. Horregatik lehen orrialdean jartzen duen abisua:

Bigarren izkribaldi hobetua. Baina jartzen du gehiago ere: Elaberririk historiko aberkoia. Garaziko lurretan kokatzen da istoria eta Erdi Aroa du garaia.



Ikastaroak

• Lanbide Hastapena

Deba Garaiko Udal Elkar-teak, Lanbide Hastapeneko beste sei modulo berri jarri ditu martxan. Ikastaro hauek 16-17 urte duten gazte langabetuentzat dira. Mekanika, elektrizitatea, sukaldaritza eta harozgintza ikas daitezke Lantegi Eskolak antolatzen dituen ikastaro horien bidez. Ikastaroaren iraupena urte betekoa da, abendura arte. Informazio gehiago, Lantegi Eskolan.

Irteerak

• Mendi irteera

Murruko mendizale elkar-tekoek igande honetan mendi-irteera berri bat egingo dute, Araotz inguruan dagoen Zekilaga mendira hain zuzen ere. Atxabaltarrekin batera joan nahi dutenek, igandean goizeko 9etan Partenoian egotea besterik ez daukate.

Irteera egun erdirako izango da, goiz parterako; beraz, bazkaririk eraman beharrik ez dago, bai, ordea, hamarretakoa.

“Publizitatea informazio komertziala dela esaten dutenek, zail xamar jistifika dezakete informazio hori euskaraz ukatzea. Izan ere, informatua izateko eskubidea duenak, publizitatea jasotzeko ere ziurtatua du, eta gure gizarte elebidunean, euskaraz izatekoa ere hor dugu.”

(Edu Aranak HIKA hamabostekariko urtarrileko bigarren alean)

“Txiki-txikitatik batzokian zegoen frontoira joaten ginen eta Mondragonesekin entrenatzen genuen, eta hark erriel bat ematen zigun. Baina gutxienez beste 20 mutiko zeuden, guk baino ere hobeto jokatzen zutenak. A zer egurretak hartzen genituen! (...) Zuek guztiok asko hitzegiten duzue Atano III.az, Atano VI.az etab eta Bolinaga ahaztu egiten duzue. Pelotaz idazten duzuen guztiok mahainguru batetara gonbidatzen zaituztet garai bateko eskuzko pilotariei honako galdera hau egiteko: Noren kontra ez zenuen jokatu nahi izaten? Bolinaga aipatuko dute denek. Eugenio aurrelari handia izan bait zen, eta ez aparteko defentsaduna bakarrik. Errematatu ere oso ondo egiten zuen. Eta gutxi, oso gutxi akordatzen dira berarekin.”

(Jose Arriaran pelotariak DEIA. 1992-I-28)

“Nire ustez Euskadin, pakearen koordena-
dek funtzionatzen badute, oraindik gauza handiak
egingo dira. Horiek nagusitzen ez badira, dekadentzia
errukigabea izango da; beraz, ongi egindako gauzenga-
tiko grina berreskuratu behar da eta kalitatea kompeti-
tibotasunaren bektore estrategiko gisa, filosofia inte-
grazio giroa ere sortuz ...”

(Jesus Larrañagak DVn. 1992-II-2)



Zer egiten du
bake-epaile batek?

Herri batetan Ar-
gibide Epaitegirik eta
Lehen auzipidetarako
Epaitegirik ez dagoe-
nean (Arrasateko kasua),
bertan Bake-Epaitegia
izango da, eta Bake-Epailea Epaitegi horren buru
izango da.


Beraz, Bake-Epailearen egitekoak ondorengoak
izango lirateke:

- Herri alorrean: Errolda eramatea, non herrian
gertatzen diren ezkontza, jaiotze, heriotze eta eman-
tzipazioei dagozkien xehetasunak adieraziko bait dira.

- Zigortegi alorrean: hutsegiteengatikako auzipide
batzutan egotea eta ebazpena ematea (erabakitzea)
izango da epailearen egitekoa.

Aipaturiko betebeharrorien gain, Bake-Epaitegiak
beste Epaitegiekin lan kide izan beharra dauka, hau
da, epailaritza laguntza. Honela zehazte-bideak edo
beste Epaitegi batzuk eskatutakoa burutu beharko du.
Adibidez, Epaitegi batetan Arrasateko herritarren baten
adierazpena behar badute, Arrasateko Bake-Epaitegira
eskatzen da, eta epaileak adierazpena hartuko du
ondoren eskea egin zuenari bidaltzeko. Hauek dira
batez ere, Arrasateko Bake-Epaileak betetzen dituen
lanak.

ANA SAN MARTIN,
ARRASATEKO BAKE-EPAILE BERRIA.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

**Z
a
r
r
a
o
a**

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

Aramaio

• Gizarte zerbitzuak

Arabako Foru Aldundiak orri batzuk banatu ditu Aramaion baserriz baserri gizar- te zerbitzuak zer diren eta Arabako kuadrila ezberdine- tan eta herri bakoitzean konkretuki zer gizarte zerbi- tzu dagoen eta horietaz nola balia datekeen herritarrei ezagutarazteko.

• Liburutegia

Liburutegiaren egoera kritikoa dela erantzuna etorri da Gasteizko Gobernutik, aspalditik bait zebilen Udala neurriren batzuk hartu beha- rra zegoela eta Jaurlearizari eskabideak egiten. Jaurleari- tza liburutegiaren kargu egin zenetik ez da liburutegian li- buru bakar bat sartu eta, egoerari irtenbidea emateko euskarazko 400 liburu ero- siko ditu Gobernuak. Udalak gaztelarazko batzuk eroste- ko konpromezua hartu du.

Esan beharra dago Udal Liburutegiak baduela langi- le bat ere eta arratsaldero ume txiki mordoska joaten dela ipuinak irakurri eta marraz- kiak egitera.



Aretxabaleta

• Eragindako sutea Correos-eko egoitzan

Larunbat gauetik igande goizera bitartean, 1.30ak aldera, ezezagun batzuk Correos-etako egoitzako kristalak hautsi eta sua eragin zuten. Suhiltzaileak etorri zirenean laister kontrolatu zuten sutea, baina ordurako milioi bat pezeta inguruko kalte materialak eginda zeuden. Ez zen karta gehiegi erre, bu- zoikoak bakarrik, baina zerbitzua hiru egunez eten zen. Gau berean, EAJ eta EAren egoitzetan kristalen bat hautsi zuten.

• Santa Ageda eskaleak

Ohiturari jarraituz, aurtengo kintoak ere Santa Ageda bezperan irten ziren baserriz baserri Santa Eskean. Hilaren 5ean kalean ibili ondoren, iluntze aldera herriko kaleetan zehar ibili ziren, plazan aurrekuarekin bukatzeko. Aurtengoan ohiturari ez zitzaion osotasunean utsi, geroz eta gutxia- go dira eta baserritar jantziekin ateratzen direnak eta kintoak makila barik atera zirelako. Ihauteriak arte, igandero egingo dute dantza eta batutako dirua afarietarako eta dantzara ateratako neskak txokolatea jatera eramateko izango da.

Bergara

• Pol-polek 50 urte

Bergarako Pol-pol mendizale taldeak 50 urte bete- tzen ditu eta hori dela eta espedizioa bidaliko du Hi- malayara. Talde honen asmoa *Trango* 1.200 metrotako pa- reta eskalatzea eta *Daulag- hirira*, munduko zazpigarren gailurra igotzea. Honetaz gain, eta 50 urteurrena ospa- tzeko hainbat ekintza izango dira, martxoaren 10ean dia- positiba emanaldia, 12an mendiko elikadurari buruzko hitzaldia, 15ean meza eta he- rri bazkariarekin ospatuko da 50. urteurrena. Azkenik, zen- bait filmeren emanaldiak izango dira martxoaren 16, 17 eta 18an.

• Herriko ekosistemak

Mendia Bizirik ekologis- ta taldeak hemendik ekainara bitartean burutuko diren sei irteeren bidez herriko eko- sistema erakutsiko du. Irtee- ra bakoitzak berezitasun bat edukiko du eta larunbat goi- zetan izango dira. Hilean be- hin burutuko dira irteerak eta herritar guztiei irekiak izan- go dira.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA


Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

Dena onartu Plenoan

Joan den ostiraleko Plenoan, onartutako gaiak hamalau izan baziren, aipagarriena Uharkapeko obrei berregiteko hartu zen aurreakordioa litzateke. Akordio horren arabera, Uharkapen interesa duten guztien artean epaile bakar bat izendatuko dute arazoei erantzunak emateko. Horretaz gain, azokako araudi berriaren onarpena.

Eli Galdos Diputatu Nagusia herriko berri zuzenagoa izateko hurbildu zen ostiralean, eta era berean, ahal zen neurrian, Deba bailarako problematika Diputaziora hurbiltzeko. Diputatu Nagusi bezala lehen bisita izanik, aurrerantzean harreman hestugotan jarraitzeko asmoa adierazi zuen.



ONGIETORRIA JAIOBERRIEI

Unai Arrizabalaga Garai, abenduaren 25ean.
Xabier Belastegi Zubillaga, 26an.
Alba Casares Duque, 29an.
Edurne Sagasta Urrutia, otsailaren 2an.

Txandaka

ESKOLA PUBLIKOETAKO BATZORDE ERABAKITZAILEA: ESKOLA KONTSEILUA

Otsail honetan Ikastetxe publiko guztietan berri behar dituzte beren Eskola Kontseiluak; hala nola, Arrasateko Musakola, Erguin eta S. Andres OHoko eskoletan eta Institutoan.

Erakunde hauek 1986. urtean sortu ziren lehenengo aldiz Euskal Komunitate Autonomoko Gobernuaren aginduz.

Aurretik izan ziren hanemenak ikasleen gurasoen saioak, eskolako erabakietan eta antolamenduetan parte hartzeko. 1976-1977 ... urteak gogoratu behar ditugu, Herri Ikastetxe haetan euskararen irakaskuntza martxan jartzeko nolako eginahalak egin behar izan zituen zenbait guraso taldek (irakasleak ahaztu gabe).

Denborarekin, Eskolak euskalduntzen eta berritzen joan diren bezalaxe, irakasle eta gurasoen arteko harremanak aberasten joan dira.

Aipatutako 1986. urtetik hona, laugarren aldiz egingo ditugu Eskola Kontseilua berritzeko hauteskundek. Bi urteko iraupena izaten baitute.

Eskolako partaide guztiek har dezakete parte, botazioen bidez, beren ordezkariak aukeratzeko, hiru sailetan. Horrela, Eskola Kontseilua honakook osatzen dute: 9 irakaslek, 9



Xabier Agirre (*)

gurasok eta 3 ikaslek, ikastetxeko zuzendaritza eta Udaleko zinegotzi batetaz gainera.

Erakunde hau Ikastetxearen ordezkari nagusia da, inoren aurrean eta barruko organizazioan nortasuna duena. Erabaki garrantzitsuenak hartu behar ditu, sortzen diren arazoak konponerazi, egita-

rauk, egutegiak, eskolaren norabidea ...


Bi batzorde, Iraukorra eta Ekonomikoa osatu ditzake eta hortik aurrera Ikastetxe bakoitzaren dinamikaren arabera.

Eskola Kontseiluak Irakaskuntzari bizitasun bateratua eskaintzen dio, eskola publikoaren antolaketan pauso garrantzitsua gertatu delarik.

Esan bezagun, beste kasuetan bezala, mugimenduak sendotzen doazen heinean sorrerazten direla erakundeak.



(*) ERGUINGO HERRI-ESKOLAKO ZUZENDARIA



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Lehendik dauden programak indartu eta beste berri batzuk eskainiko dira.

ATBn programazio berria

Pelikulak eta lehiaketa nobedade aipagarrienak

Arrakasta lortzeko helburuarekin, otsailaren 10etatik aurrera ATBk programazio berria eskainiko die arrasa-tearrei. Telebista eta ikuslegoaren artean etenik egon ez zedin, orain hilabete batzuk eguneroko emisioa jarri zen martxan. Eguneroko ihardueraren ondorioz, denboraren puruz, programa eta aurpegi ezagun batzuk desagertu egin ziren. Hortik etorri da programazio berri eta konpetitiboa finkatzeko beharra.

Programazio berriak eskainiko dituen berrikuntza nabarientak, filme emanaldiak eta lehiaketa izango lirateke. Pelikulei dagokienez, astero eskainiko da bat, egunero ikusteko aukera izango delarik, aste osoan filme bera eskainiko bait da. Guztira, ehun pelikula baino gehiago eskaintzeko asmoa dago; beraz, pare bat urtetarako materiala bada hor. *ATBketan* izena daraman lehiaketa ere, orain estrainatuko da. Herriko koadrilei zuzendu zaie lehiaketa

ta eta, estudioko frogez gain, kalean egin beharreko hainbat frogaz izango dira. Lehiaketaren aldeko apustuarekin, ATB zuzentzen dutenen artean, beste telebistetako planteamendu konpetitiboa antzematen da, ikuslegoa nolabait lotzeko asmoa.

Berrikuntza nabarmenenak aipatutako biak izanda, badira txikiagoak ere: herrian gai polemikoren bat dagoenean mahaingurua prestatu, astean bi erreportai eskaini, tertuliaren bat jartzeko intentzioa... eta orain dagoena indartu, *Mondrasport*, *Txatxaran* edo *Ostiral Musikal* programekin.

Aurrera begira, herritarrei ATBn parte hartzeko aukera eskaintzeko asmoa ere bada, etxean egindako bideoen bidez edo dituzten ideiak aurrera eramaten. Bestalderako joera ere, ez legoke gaizki, jendeak zerbait duenean zuzenean ATBra jotzeko joera hartzea, kolaboratzaile sarea osatuz.

Usteak uste

“**B**etiko txakurrak lepoko ezberdinekin”. Joseba Arregiren hitzak dira, Autonomi Elkarteko aurrekontuen aurkako protesta kaleratuz *Kultur Kezka* elkargunea agertu zenekoak. Ez zait iruditu hitzok beste edozeinenek adina oihartzun izan dutenik, eta neuri behintzat hitz gogorak iruditu zaizkit. Kulturaren kontura bizi den kargu batek esateko, gogortxoak. Azkenean, kulturagatiko kezka bizi duten sinadura horietatik sortzen da egunero-egunero kultura, horietatik eta oraindik sinatu ez duen milaka herritarrengandik. Errespeto kontua ere bada horrela hitzegitea, neuk pentsatu.

Betikoak direla? Aurkako frogatzeko sinadura zerrendari begiratu bat ematea besterik ez dagoela esango nuke, adierazpen publiko gutxi egiten duen askoren izenpea jasotzen da eta zerrenda horietan. Eta txakur kontu hori... dagoenetan uztea hobe...

Aurtengo aurrekontuenak hala beharko du beharbada, baina alderdiek euren ordezkari zenbaitek baino sentsibilitate gehiago dutela erakutsi dute, eta horiekin hastear dauden harremanetatik zerbait etor daiteke, igoal. Kontua da erabaki horien eragina gure Udaletan ere has daitekeela igartzen eta horrek hurbilagoatik eragingo digula herritarroi. Oteiza gehiagoren beharrea ote gaude? Nork daki!


ARANTZAZU LOIDI

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu, 24
ARRASATE

Tfnoa: 79 70 39

Udal-tasen ordainketa

Udal-tasak ordaintzeko orduan lan-gabetu eta jubilatuek laguntza izan dezaten, Udalak subentzioak jarri ditu. Subentzio horietaz baliatu nahi duten guztiek, datorren martxoaren 13a baino lehenago egin beharko dute eskaria Udaletxean bertan.


Hondakin Urbanoak

EKI ekologista taldeak Udaletxearekin eta Mankomunitatearekin elkarrizketa bat eskatu du, Hondakin urbanoak selektiboki batzeko proposamen bat aurkezteko asmoz.

Rafa Etxabe kalean

Joan zen astelehenean, hilak 3, Rafa Etxabe euskal preso politikoa Langraitzeko espetxetik irten zen balditzapeko askatasunarekin. Asteartean, arratsaldeko 8ean, Sebero Altuben, jende ugari eman zion ongi etorria.

Rafa Etxabe 89ko Irailan atxilotu zuten. Espetxeko ia bi urte t'erdietan Alcalá, Herrera, Iruñea eta Langraitzeko pasatu ditu.



Batez ere, beste udalerrietan dauden zerbitzuak azertu nahi dira.

Udaletxeen arteko konparaketa


Bost lagunen artean aukeratu beharko du Udalak

Beste herri batzutako udalek herri-tarrei zein zerbitzu mota eskaintzen dien ikusteko helburuz, ikerketa bat egingo du Udalak. Ikerketa hori interesgarria izan daiteke, udalek lege-araudi bereak izanik, zerbitzu eta funtzionamendu desberdina izaten dutelako. Proiektua aurrera eramateko pertsona izendatu arte, ez da konparaketeko udalerririk aukeratu, baina aukeratuak industrialak eta 25.000 biztanle ingurukoak izango dira, seguruen Euskal Herriko 2-3 eta Kataluniako beste pare bat.

Konparatu beharreko udalen koka-

pen eta deskripzioa, baliabide ekonomikoen azterketa, ondasunen zerrenda, baliabide eta ondasun horiekin lan egiten duen jende eta postuen azterketa, gobernu-organoen deskribapena eta gobernatzeko era, eta, bereziki, herri-tarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztien azterketa sakona izango lirateke gutxi gora behera egin beharrekoak.

Orain, Udalak aurkeztu diren 5 lagunen artean aukeratu du. Esperientzia ondo aterako balitz, posible izango litzateke datorren urtean Europako udalerriren batzuekin gaiza bera egitea.



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

BURGALES
JATETXEA

Jaki goxoak
eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA



Errekabarren, 20
ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90

ARRASATE
PRESS



77 05 65



Filma famatu ugari aurki daitezke Euskara Zerbitzuko Bideotekan

Bideoteka Euskara Zerbitzuan

Komertzial eta didaktikoen artean 100 zinta baino gehiago

Udaleko Euskara Zerbitzuak, erabili nahi duten arrasatear guztientzat, Bideoteka Zerbitzua jarri du martxan. Hiru urte bete dira Udal Euskara Zerbitzua, euskaraz argitaratzen ziren bideo-zintak erosten hasi zenetik. Dagoeneko, filme komertzial eta didaktikoen artean, ehun zinta baino gehiago eskaintzen zaie arrasatearrei.

Orain arte, zinta horiek, umeentzako larunbat arratsaldeko bideo-emanaldietan eta hainbat ikastetxetan erabili izan dira. Gabonetan partikular ugari

hurbildu dira Udaletxera filme eske, ondorioz Bideoteka Zerbitzua jarri dute martxan. Zerbitzu horretaz baliatu nahi duen edonork, Euskara Zerbitzura joan, ikusi nahi duen bideoa hartu eta izena ematea besterik ez dauka. Hori eginaz gero, aukeratutako bideoa 2-3 egunetarako etxera eraman ahal izango du. Hori bai, aidiko bat.

Bideotekaren eragina ahalik eta zabalena izan dadin, auzo-alkatetzetara idazki bat bidali da, eskaintzen diren filmeen zerrendarekin.

Ur, zabor eta estolderia-tasa

Udalak herritarrei jakin arazi nahi dienez, 1991.eko laugarren hiruhilabeteke ur, zabor eta estolderia-tasaren ordainagiriak, urtarrilaren 27tik martxoaren 10era ordaindu ahal izango dira borondatezko epean. Epe hori pasatu eta gero, ordaindu gabe daudenak, %20ko gainkarguarekin kobratuko dira. Beraz, gero gehiago ordaindu nahi ez duenak hobe izango du borondatezko epean ordaintzea.

Fagor Leunkorren salmenta

Urtarrilaren hasieran Fagor Leunkorren burututako Batzar Nagusiak, jiro txandaturako unitateak Antzuolako Goizper Kooperatibari saltzeko erabakia hartu zuen. Hori ez zen Leunkorrenko Batzar Nagusiak hartutako erabaki bakarra izan, burdin hagaxkak produzitzeko, zurgapen bidez, Copreci kooperatibarekin bat egitea ere onartu zen eta.

Taxien tarifak

Joan den asteleheneko Gobernu Batzordeak, beste gai batzuren artean, 1992ko taxien tarifak onartu zituen. Jakina denez, tarifa horiek oraindik onartu gabe egonda ere, aplikatu egiten ziren, beste toki askotan antzerakoak onartuta zeudelako. Taxia hartzen duen edonork, 400 PTA ordaindu beharko ditu gutxienez, bandera jeistea esaten zaionagatik, eta hortik aurrera bidaia-aren arabera.

HITZALDIA


Bertsolaritza geroaren aurrean

- Hizlariak:
- JON SARASUA
 - ANDONI EGAÑA
 - KOLDO TAPIA

Moderatzailea: Jon Iñaki Izarzelaia


Asteartea, 11 arratsaldeko 7etan Monterronen





ATBko ordezkari bat lurretan egon zen joan den astean, ETBko zuzendariaren bulegoan. Arrasatearrek ATB eta ARKO (Arrasate Komunikabideak) elkartearen aurkezpena egin zioten «Amatiño»ri eta elkar lanerako posibilitateak aztertu. Argazkian Mikel Irizar, ARKOko lehendakaria, Luis Alberto Aranbarri «Amatiño», ETBko zuzendaria eta Jose Mari Mujika, AEDko lehendakaria.

Urtero bezala aurten ere **Santa Ageda bezpera** egunean Santa Ageda eskean irten ziren koruak. Goizean baserrietan zehar ibili ziren eta arratsaldean, berriz, ikastetxetako umeekin. Ezin ahaztu eurekin kalez kale eta enpresaz enpresa eraman zuten pottoka ere.



Etxeetako enplegatuek dituzten eskubideak eta betetzen ez direnak azalduz, kartel bat jarri dute Portaloian. Bertan, sindikatuek, Egizan eta Emakumeen Asanbladak sinatzen dute.

Arrasaten irristolaren moda hasi zen **Txanpa denda** zabaldu ondoren. Daniel Lasagabaster, jabea izatez Argentinako Rosario hirikoa da. Duela bost urtetik hona Arrasaten zegoen, orain dela bi aste herritik joan da, zurrumurruek diotenez zor ugari utzita desgertuz.

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Izen
PROPIOAK




● **Ana San Martin Azofra**, 24 urteko arrasatearra Arrasateko Bake-epaile berria izango da aste honetatik aurrera, joan den astelehenean Udal-plenoak hala erabaki eta gero. Anak Zuzenbide ikasketak egin zituen Donostian eta Praktika Juridikoa Bergarako UNED-ean.

● **Jabier Ozaeta**, 25 urteko arrasatearra izango da AEDko idazkaria aste honetatik aurrera. Jabierrek Magisteritza ikasi zuen eta Udalak Euskare erabilera bultzatzeko egindako Hitzarmeneko teknikari lanetan aritu da urte bete eta zortzi hilabetez.

● **Jose Luis Telleriak**, 39 urteko arrasatearrak, Ornodunen Zoologiako Katedra aterra du Madrileko Unibertsitate Complutensean. Biologia ikasi zuen Valladolid eta Madrilan. 1975etik Madrileko Unibertsitate Complutensean dihardu lanean.

▲
Santa Barbaran egiten ari diren parkean Luko etxearen azpian, **estanketxoak egingo dute** eta bertan ahateak botako dituzte. Arrasaten egongo diren lehenengoak izango dira, orain arte beste inon ere ez daude eta.



Pedro Luis argazkilaria,
**North American
Basque
Organizations**

elkarteak bere argazkiekin argitaratu duen egutegia bidali digu. Azalean **Jaione Larrañaga** arrasatearra ▶

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena


Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Deba errekatik ateratzen ziren altzek, beraien adarrekin espaloia okupatzeko "ausardia" izan zutenek, ez dakigu nork baina arbola hauei adarrak moztu beharrean, **erdi erdi-tik moztu** zituen. Ekintza hori Elektronika eta Intxausti baserriaren arteko erreka zatian dago.




Joan zen astean **Eibarko Euskaltegiko** talde bat etorri zitzaigun, Arrasate Presseko erredakzioa eta ATBkoa ikustera. Taldeak interes handia erakutsi zuen batean zein bestean.



San Frantzisko **Xabier Ikastolaren 25. urteurrena** betetzen dela eta, joan den asteburuan izan den afarian aparteko giroa izan zen. Ikasleak aspaldiko lagunekin berrikeretan gustora eta irakasleak ere oso pozik. Irakasle multzo handia, horien artean aspaldian Arrasatek kanpo dabilzan batzuk, etorri eta ikasle ohiak ezagutzeko ere nahikoa arazo izan zituztenak. Beste batzuk orduan lanari ekiten lehenak izan eta oraindik ere ikastolan jarraitzen dutenak, eta nola ez, batzordeari eragiten ari direnak. Andereño beterranoen artean, **Ana Mari Arana, Maria Luisa Lizarralde** eta **Izaskun Pujana**. Zorionak ikasle zein irakasleei!


Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



Agur, agur!

Talde batek baino gehiagok esan dio agur! dagoeneko aurtengo Zaldibarko futbito txapelketari. Izan ere, 24 taldek bakarrik izango dute aurrera egiteko aukera eta 48k ez. Horien artean, etxe honetakoa, Arrasate Pressekoek aspaldi galdu zuten sailkatzeko aukera eta.



INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Anboto

Iturriotz, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 20 48

- Errentamenduak
- Salmentak
- Balorazioak, etab.

fas print

Inprimaketa-denda

Arrasate Pasealekua, 2
ARRASATE
Tfnoa: 77 06 11
Faxa: 77 09 86



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Los Heredia	12	9	2	1	75	38	20
Akaitegi Express	11	7	3	1	91	30	17
Fosforos	12	7	2	3	59	32	16
Zulu's	11	8	0	3	73	34	16
Adobe	12	7	2	3	41	35	16
G. P. Noski	12	6	3	3	57	28	15
Jubilatus	12	5	3	4	51	60	13
Kriskibalda	11	5	2	4	49	35	12
S. Ind. Ugarte	12	5	1	6	37	44	11
A. Kristaldegia	11	4	1	6	29	33	9
Koxkas	11	3	3	5	43	61	9
Uglys	11	2	0	7	27	69	4
B. D. L.	12	1	1	10	23	85	3
T. San Josepe Expert	—	—	—	—	—	—	—
Los Manchas	—	—	—	—	—	—	—
Neanthertal's	—	—	—	—	—	—	—
Tronkoteak	—	—	—	—	—	—	—
Totala	162	69	24	69	683	683	162

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fasprint	13	9	3	1	63	25	21
La Banda	12	10	1	1	56	20	21
Los Motz	12	9	0	3	80	26	18
Potroak Lorategi	13	7	3	3	59	34	17
Navarros	13	8	1	4	49	28	17
Jo ta akabau	12	8	1	3	47	28	17
Danok Lagun	12	7	2	3	50	24	16
Sibilus Rover	12	6	3	3	34	29	15
Anbotoste K. T.	13	5	2	6	40	51	12
Txintxes Osorik	12	4	2	6	29	40	10
Ganbelas	13	3	1	9	29	47	7
Bukanak	12	3	1	8	31	55	7
Inter de Alima.	12	1	1	10	25	75	3
Oleee!	13	1	1	11	28	85	3
Maria del Monte	12	1	0	11	23	76	2
Gau Azkenak	—	—	—	—	—	—	—
MKA	—	—	—	—	—	—	—
Totxus	—	—	—	—	—	—	—
Totala	186	82	22	82	693	693	186


SAILKATUAK

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	15	13	0	2	74	17	26
Argi Ibili Mapfre	15	12	1	2	108	41	25
Gnu Seg. Bilbao	15	12	1	2	53	14	25
AEK	15	10	3	2	57	37	23
Bar Kajoi	15	11	0	4	82	30	22
Diego Antonio	15	9	2	4	57	45	20
New Laso Arregi	15	8	2	5	50	38	18
Txokeros	15	6	2	7	47	42	14
Aizpun bila	15	7	0	8	58	80	14
ATB	15	6	2	7	57	65	14
Sokoakoak	15	5	2	8	47	59	12
Aurrera Bolie!	15	4	3	8	44	57	11
Alaves	15	4	1	10	30	60	9
Arrasate Press	15	4	1	10	30	53	9
T. Monterrey	15	3	3	9	43	80	9
Bayer de Leniz	15	3	1	11	35	80	7
Shaktale	15	1	4	10	34	76	6
Whiskeria Linde	15	3	0	12	49	81	6
Totala	270	121	28	121	955	955	270

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Artzankos Udal.	14	11	1	2	62	28	23
A. Kirolak	14	11	1	2	58	23	23
V. C. Daglas	13	8	3	2	68	24	19
Bar Artano	14	9	1	4	56	40	19
Bizkorak	13	8	1	4	45	31	17
Pepelus	13	7	2	4	45	30	16
Camerun's	13	7	2	4	56	39	16
Notxingan Flo.	13	7	1	5	43	35	15
Hirei	13	7	1	5	46	29	15
Arrasate Comer.	13	6	2	5	28	35	14
Ghana	13	6	1	6	46	39	13
Nagixak	13	3	2	8	29	54	8
Kakajauri.	13	3	1	9	28	52	7
Ezkinako Hontza	13	2	2	9	29	65	6
Sukumurus	13	0	1	12	19	59	1
Atxanta ke te...	14	0	0	14	19	94	0
Balaike	—	—	—	—	—	—	—
Resakas	—	—	—	—	—	—	—
Totala	212	95	22	95	677	677	212





Atezainaren postuan aurrea hartzeak garrantzi handia izaten du, aurrelariak beti hor izaten bait dira adi-adi aukera guztiak aprobetxatzeko. Argazkikoak ondo betetzen du bere lana, baina oker txiki bat ere badauka, balbiari behar bezala eusteko begiak zabalik izatea komenigarria izaten da eta.

EMAITZAK

A taldea

Talleres San Josepe 1	Sum. Ind. Ugarte 6
Zulu's 2	Uglys 4
Expert	Jubilatus
Los Heredia 6	Kriskibalda 4
G. P. Noski 4	Arrasate Kristaldegia 2
Adobe 3	Fosforos 1

B taldea

Los Motz 2	Jo ta akabau 4
Ineter de Alimarias 1	Sibilus Rover 5
Navarros	Gau-azkenek
Txintxes Osonik 2	Anbotoste K. T. 2
Maria del Monte 2	Oleee!!! 8
Bukanak 0	La Banda 2
Danok Lagun 7	Ganbelas 0

C taldea

Diego Antonio 1	Argi ibili Mapfre 7
Aurrera bolie 2	Bar Kajoi 3
Bayer de Lenitz 7	Shaktale 0
Whiskeria Linde 5	New Laso Arregi 3
Gnu Seg. Bilbao 2	Adelaida 0
Aizpun bila 3	ATB 4
Sokoakoak 2	Arrasate Press 0
Monterrey Taberna 5	Alaves 1
Txokeros 1	AEK 6

D taldea

Nagixak 1	Hirei 6
Atxanta ke te mereces 2	Camerun's Trikiti 9
Notxingan forest 2	Bizkorrak 3
Arrasate Comercial 2	Artzarkos Udalaiz 2
Pepelus 2	V. C. Daglas 2
Arrasate Kirolak 6	Ezkinako Ontzak 1
Bar Artano 3	Kakajauri 1

Kafetegi
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

EDERRA

TABERNA

Iturriotz, 12
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

BRANKA

taberna

Zarugaide, 1 ARRASATE
Tfnoa: 79 21 13



ARRASATE

KIROLAK

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30



Txutak

Izugarrizko gol pila Zulu'sek

.....

Hurrengo fasera pasatuko diren taldeen izenak ezagutzeko bi partidu eta kasu batzuetan bat bakarrik gelditzen diren arren, eta ondorioz datorren asteburuan gerta daitekeenak garrantzi handiena duen arren, aipamen berezi bat egin behar zaio Zulu's taldeari, Zaldibarko txapelketako goleada lortu du eta: **29 gol Ugly's** taldeari. Ikaragarria!

Aipamen hori eginda, datorren asteko ihardunaldari begiratu behar zaio, oraindik sailkapena kolokan duten talde batzuk badaude eta. Multzoka, gauzak horrela daude: A multzoan, *Los Heredia* sailkatuta dago eta *Akaitegi Expres, Fosforos,*

Zulu's eta *Adoberi* ez zaie asko falta. *Koxka's - G. P. Noski, Adobe - Zulu's* eta *Kriskibalda - Fosforos* partiduetan irabazle ateratzen direnek sailkatzeko aukera handia izango dute. B multzoan, *Fasprint* eta *La Banda* sailkatuta daude eta *Los Motz, Lorategi Potroak, Navarros* eta *Jo ta akabau* sailkatzear. *Txintxes Osorik - Jo ta akabau*, partidurik interesgarriena sailkapenari begira. C multzoan, berriz, *Adelaida, Argi Ibili* eta *Gnu Seg. Bilbaokoek* sailkapena lortu zuten, *AEK, Kajoi* eta *Diego Antoniori* ez zaielarik asko falta. *Diego Antonio - Bar Kajoi* eta *New Laso Arregi - Arrasate Press* partiduek erabakiorrak izan daitezke. Azkenik, D multzoan, *Artzankos Udalaitez* eta *Arrasate Kirolak* taldeak hurrengo fasean daude dagoeneko; iritsi nahiean, berriz, *V. C. Daglas, Bar Artano* eta *Bizkorrak. Nagixak - Camerun's, Pepelus - Bizkorrak* eta *Bar Artano - Notxingan Florest* partiduek gauza asko argitu ditzakete.

DATORREN ASTEAN

A taldea

Los Heredia	Uglys
Koskas	G P Noski
Akaitegi Expres	A. Kristaldegia
Adobe	Zulus
Kriskibalda	Fosforo's

B taldea

Los Motz	Sibilus Rover
Bukanak	Danok Lagun
Anbotoste K. T.	La Banda
Maria del Monte	Ganbelas
Txintxes Osorik	Jo ta akabau
Inter de Alimñas	Oleee!!!

C taldea

Diego Antonio	Bar Kajoi
Aizpun bila	Shaktale
Sokoakoak	Monterrey Taberna
New Laso Arregi	Arrasate Press
Gnu Seg. Bilbao	Alaves
Whiskeria Linde	Argi ibili Mapfre
Aurrera Bolle	Adelaida
Txokeros	Bayer de Leniz
ATB	AEK

D taldea


Nagixak	Camerun's Trikiti
Pepelus	Bizkorrak
Sukumurs Anboto	Arrasate Kirolak
Ghana	Ezkinako ontzak
Arrasate Com	Hirei
Bar Artano	Notxingan Florest
V. C. Daglas	Kakajauri

Foruen



Gure berezitasuna: rabak

Foruen Plaza, 2 Tfnoa: 79 06 16
ARRASATE




EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabilioia.
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11



BETI SEGURU



MIKEL LASA

Aseguru artekaria

Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43



ITURRIOTZ taberna

Girorik jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04

Merkataritza Ganbarak urtero artisauen artean banatzen dituen sarietariko bat jaso zuen joan den astean Bixente Barandiaran arrasatearrak. Larogei urteko gizon osasuntsu hau errementari izan zen urte askotan eta aspaldi jubilatuta dagoen arren, egunero pare bat ordu eskaintzen dizkio lanari.

— Jasotako sariarekin gustora?

— Bai horixe! gainera, inundi inora espero ez nuen gauza izan da. Dirudienez, neuk ezer jakin barik, norbaitek bazeukan nire berri.

— Noiztik errementari?

— Sei anai-arreba bizi ginen baserrian, hemen Marko-Etxeberrin, orain Markoalde deitzen zaion honetan. Bizimodua atera behar eta 18 urterekin Zarugaldeko burni-olan hasi nintzen lanean. Hiru urte pasatu nituen han eta lanbidea ikasi nuen. Gero, soldaduzkara joateko deia iritsi zen eta Iruñeara eramán ninduten.

— Gogorra izan zen?

— Bada, ez pentsa! zortzi hilabete bakarriekin nituen. Guk instrukzioa kalistroetan ikasi genuen eta soldaduzka egiteko orduan deskontatu egin ziguten.

— Zela, zela?

— Gasteiztik kapitain eta teniente bat etortzen ziren, herriko gazteei instrukzioa erakustera. Ikasitakoak gerorako balio zuen. Errepublikari iritsi berria zegoen eta orduan jan eta edaten behintzat ederki ematen ziguten, Errepublikaren aldeko propaganda egitearren izango zen. Gero gerra etorri zen, hura bai txarra!

— Non harrapatu zintuen?

— Orduan Gasteizen nebilen, idi eta zaldiak perra-

Bixente Barandiaran

Bizi osoan errementari lanetan



tzen. Uztailaren 20a zen, Dato kalean nindoan trenea hartzeko asmoz, baina eten da zegoela eta bertan gelditu behar izan nuen. Soldadu eramán ninduten, *Flandes* Regimendura eta han pasatu nituen 32 hilabeteetan praktikante lana ikasi nuen. Idearik ez neukan, baina lan hori eman zidaten eta beharko ikasi, gustora gainera! ikasitakoek gerorako ere balio izaten dute eta.

— Gerra ondoren, etxera buelta?

“**Baserria mekanizatu arte lan ugari izaten nuen, makina bat abere ekartzen zituzten baserritarrek”**”

tresneria ugari konpontzeko ere, baina orain ezinezkoa da. Batzutan, oso noiz behinka egia esan, baserritarren bat agertzen da, behiren bat joka dabilela eta perratu dezadan, baina ez da eguneroko gauza, lehen bezala.

— Gaur lantegietan makinak egiten duten tresneria edo eskuz egiten zenutena?

— Eskuz egindakoak beti izaten du grazia desberdina.

— Norberaren lanbidea izan dena desager daitekeela ikusteak, zer sentiarazten du?

— Niri tristura eta pena galanta ematen dit, baina progresoaren kontuak dira eta horren aurka ezin da ezer egin; horrek ez du bueltarik izango. Berez, lanbide gogorra da baina gustoz hartuz gero, ondo dago.

— Ikasi nahiean edo, norbait etorri zaizu?

— Behin etorri zitzaidan mutil gazte bat, gustora ikasiko zuela esanez, baina nik ezin nion segurtasun sozialik ere ordaindu eta joan egin behar izan zuen. Seme nagusiak ikasi zuen eta batzutan elkarrekin ibiltzen gara.

— Jubilatuta, 80 urterekin eta osasun onez, ezta?

— Bada, bai, makalaldi bat izan nuen orain urte batzuk, infarto baten atarian izan nintzen, baina harrez gero primeran nabil: apetituri ez dut falta izaten eta ibiltzeko arazorik ez daukat eta egunero lanari pare bat ordu eskaintzeko eragozpenik ere ez.

— Noiz arte lanean?

— Ahal dudán arte. Oraingoan, ez dut uzteko asmorik. Egunero ordu pare batean mailuarekin kolpeka arituz gero, ondo nabilela iruditzen zait, gorputza askatu egingo banu bezala da, gorputzari egunero aurrera egiteko indar berri bat eman-go banio bezala.

Baserritik bizi izatearen zailtasunak

Sasoi baten Euskal Herriko bizimodua neurri handi baten baserritik ateratzen zen, bailara honetan behintzat. Orduetik hona aldaketa asko izan dira, enpresak sortzen hasi eta baserriari lekua jaten joan ziren. Gaur egun, berriz, baserriak txalet itxuraz, bizileku edo asteburuak pasatzeko etxe bihurtzen ari dira.

Baserria bizibide

Jose Iturbek, Bedoñako auzoan bizi denak, betidanik baserritik bizi izan den arren —ardiekin neurri handi baten, behiekin eta baratzen gutxiago—, arazo eta traba asko du bizibide honekin jarraitzeko. “Nik ardiekin egiten dut lan batez ere, baina denbora batetik hona asko aldatu da egoera. Alde batetik, lehen ardiei kentzen zitzairen ileak koltxoiak egiteko balio zuten. Gaur egun horretarako ere ez du balio eta artile guztia almazentatuta dago. Gainera oso lan astuna da, derri gorrez egin beharrekoa eta azkenean ezertarako balio ez duena. Bestetik, udazkenean kentzen diren ardi zaharrak lehen buzkantzarako egiteko erabiltzen ziren, gaur egun, ordea, ez dute bat ere estimaziorik. Arkumeek ere prezio bera dute urtetan, bajuagoa ez

bada. Ardi esnearekin egingandako gazta da nahiko ondo saltzen duguna”.

Maioristek erosten duten arkume gehienak kanpotik ekarritakoak eta esne artifizialarekin hazitakoak dira “horretako arkumeak oso

merke erosten dituzte maioristek eta gero merke saltzeko aukera izaten dute, nahiz eta arkume horiek askoz ere kalitate txarragokoak izan. Hemengo arkumeak ardiak hazitakoak dira, haztea gehiago kosta arren, kalitatea

askoz hobea da, hala ere, saltzerako orduan esne artifizialarekin hazita balego moduan ordaintzen dute. Beraz, ez da bat ere errentagarria. Nahiz eta gure arkumeak kalitate gehiagokoak izan, jende gehienak merkeagoa dena erosten du kalitateari begiratu gabe”.

Etorkizun beltza dute baserritik bizi direnek, eta gero eta gutxiago dira; esate baterako artzantzatik bizi direnak, oso gutxi dira bailara honetan eta gazteenetakoa bera izango dela esaten du Jose Iturbek; “beraz, arizantzak hemen ez du hamar urte baino gehiago iraungo, ni jubilatzen naizen arte, atzekoak ez dute jarraitzerik nahi eta, hemen ez dago beste lanetan bezala hile bukaeran soldata bat. Oso etorkizun iluna ikusten dut, ardietatik nahiz behietatik bizi nahi dugunontzai”.

Lantegia eta baserriko lana

Aitor Murgoitio Udalako auzoan bizi da eta lantegi baten lan egiten duen arren, baserrira bakarrik dedikatzea gusatutako litzaioke. “Baserriko lana fisikoki gogorra-



Baserri bakoitzaren terrenoaren arabera makinaria sar daiteke

goa da, baina lantegikoa psikologikoki da gogorra. Dena dela, baserriko lanaren gogortasuna gutxitzea lor daiteke, baina ez da bat ere erretagarria”.

Administrazio aldetik oso laguntza gutxi jasotzen dute baserritarrek. Behietara dedikatzen diren baserritarrak orain dela hiru bat urte Haragi Komertzial Kalitatezko Elkarte osatu zuten eta sortzaileen artean mantentzen dute, orain arte administratibotik ez dutelako bat ere laguntzarik jaso. “Jaurlaritzak behi pirinaikoa erosiz gero bakarrik ematen du laguntza, eurak behi hori mantentzea nahi dutelako, baina baserritarroi askoz garestiago irtetzen zaigu, behi mota hori genetika aldetik txikiagoa delako”.

Beste arazo bat, produktu gehienak kanpoan erosten direla. “Bertako haragia ko-



Baserriko lana egiteko sasoia izan behar da.

mertzializatzen saiatzen den bakarra Behiki da, Oñatira bidean dagoen kooperatiba. European soberan dagoen genero guztia hona ekartzen dute eta askoz merkeagoa denez, errazago saltzen da. Hemen saltzen den bertako

produktuen %30era ere ez da heltzen, bertako granjetako produktua barne. Horrekan nahi du saltzen den %70a kanpoko produktuak direla”.

Baserriko sektorea txikituz doan sektore bat da “ka-

letarrak baserritarrek egiten duen lana ikusten ez badu, baserritarrok jai daukagu. Baserritarrek ekologia aldetik sekulako lana egiten du eta jendea ez da horretaz konturatzen.

Kalitate oneko produktuak egin eta dirua irabaztea ezinezkoa da, horretarako sekulako granja montatu behar dira eta orduan kalitatea jeitsi egiten da. Aspaldiko esaera da animaliekin “zelako jana, halako emaitza”

Jose, Aitor eta Soledad kasu batzu besterik ez dira eta baliteke beste baserritar batzuk beste era batera pentsatzea edo egoera hobean edo okerragoan egotea, baina garbi dagoena, baserritar bizimodua ez dela erraza. Ondorioz, Euskal Herria baserri gabe gelditzen ari da eta Euskal Herria zer izango da baserririk gabe?

Baikorragoak ere badira...

Soledad Abarrategi eta bere anai-arreba batzuk Ibarreta baserrian bizi dira eta bertatik ateratzen dute bizimodua. Kanean baino lan gehiago eginaz eta batzuetan hestua go ibiliz, baserriak bizitzeko beste ematen duela uste dute. “Gu batez ere barazkietara dedikatzen gara, lehen behi esnea Santa Agedako Gaisoetxera saltzen genuen, baina sanitate arau batzuk zirela eta, ezin izan dugu gehiago saldu. Hala ere, behiekin jarraitzen dugu baratzerako ongarrria ematen dutelako eta horrela askoz ere barazki hobek lortzen direlako”.

Baserri bakoitzak duen terrenoaren arabera dago baserritik bizi ahal izatea. Baserriaren inguruak lauak badira posible izango da baratzetik ongi ateratzea “baina aldapatsua bada, ezin izango du horretan ari, makinaria asko ezin izango duela halako terrenoetan sartu. Baserritik bizi daiteke barazkiak landuaz, baina behiekin eta beste animaliekin oso latza ikusten du. Guk orain esate baterako, erleak ipini ditugu eta azokan ezia oso estimatua da eta oso ondo saldu dugu”.

**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALET

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94





Garagartzan partidua larunbat honetan

Rugby taldekoek, joan den asteko partiduan ezin izan zuten garaipenik lortu Bilbo liderraren aurka eta Atxabalpen 6 - 18 galdu zuten. Partidu horren ondoren, hamarren artean, sailkapeneko zazpigarren postuan dau-


de arrasatearrak. Asteburu honetan Atxabalpen partidu berria izango dute rugby taldekoek, lagunartekoa, Eibarko taldearen aurka. Larunbatean izango da, arratsaldeko 4etatik aurrera.

Deba arroa pilota txapelketa martxan

Aurtengoarekin 45. edizioa beteko da

Asteburu honetan Deba Arroko pilota txapelketako edizio berri bati hasiera emango zaio, berrogeitabostgarrenari hain zuzen. Arrasateko pilotariak Antzuolako pilotarien aurka jokatu beharko dute Iturripeko frontoian, alebin, jubenil eta helduen mailan.

Txapelketa honetan orain arte jokatu diren edizioei begirada bat emanez gero, arrasatearrek balantze baikorra egin beharko lukete derrigorrez. Aurrekoa baieztatzeko, pasatu diren 44 edizioetan kategoria bakoitzean lortutako txapelaren kontua atera behar da. Prejubenile-




tan, bakarrik 1981etik 1985era jokatu zen kategorian, arrasatearrek behin jokatu zuten azken partidua, baina galdu egin zuten. Alebinetan, aurreko desagertu eta aurrez bakarrik sei edizio

ezagutu duen kategorian, arrasatearrek bi urtetan finalera iristea lortu zuten, baina irabazi barik. Infantil mailan, berriz, jokaturako 18 edizioetatik, Arrasateko pilotariak sei aldiz lortu zuten txapela eta behin bigarren postua. Orain arte, arrasatearrentzat mailarik oparoena jubenilena izan da, 8 txapel eta beste 3 aldiz bigarren postuarekin. Azkenik, helduen mailan, txapel bakarra lortu du Arrasatek, lehen edizioan, Garitano-Uribarren bikoteari esker; harrez gero, lau aldiz finalera, baina garaipen barik. Ea aurtengoan lortzen den!

Hurrengo partidua

Negatibo berri bat eskuratu zuten arrasatearrek joan den astean jokatutako partiduan.



Printzipioz, Mondrak irabazi behar zuen partidua, baina arazko 90 minutuak pasatu eta gero, markagailuak banakako berdinketa erakusten zuten.

Egia esan, arrasatearrek ez dute zorterik etxean jokatu beharreko partiduetan. Astero izaten da zerbait: lesionatuak, santzionatuak, zelaiaren egoera txarra, urduritasuna, aprobetxatu gabeko aukerak... eta oraingoan, zer izango? eta gripea. Aste guztia ia arazorik gabe entrenatzen pasatu eta gero, astebururako gripeak eraso zuen eta Izagirre entrena-tzaileak ezin zelairatu izan zuen berak nahikozlukeen jendea. Partidua ez zen bat ere gaizki hasi etxekoentzat. Leiba jubenilak, segituan gola sartu zuen eta, hasierako minutu horietan Mondrak aukera paregabeak sortu zituen gainera. Gainontzean, ondarrutarrek aurrerantz egin zuten, partidua berdindu eta irabazteko moduan jarri. Beraz, berdinketa ere, ondo hartu behar.

Datorren astean Beasainera joango da Mondra, liderrari bisita egitera. Hori, seguruen beste historia bat izango da, baina esperantzarik ez da galdu behar.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

NAIARA EZEIZA

14 urterekin Aconcaguako gailurrean


Naiara Ezeiza, 14 urteko eskoriatzarra, Aconcagua mendira igozteaz lortu duen neskarik gazteena da.

Joatea erabaki zutenean oraindik ez zekiten Naiarak igotzea lortuz gero neskarik gazteena izango zenik. "hara joan aurretik, baina joatea erabakita geneukala, aitak bilera bat izan zuen kultur etxean eta han esan zioten rekorra 14 urteko neska batek zuela; hala ere, ez genion garrantzirik eman".

Txikitari osaba batekin mendian ibiltzen hasi omen zen eskoriatzarra "ondoren igandero Eskoriatzako Club Deportiboarekin joaten jarraitu nuen edo bestela gurasoekin eta gustatzen zaidalako jarraitzen du".

Badirudi hemengo mendietan ez dela asko sufritzen, "baina orain egon garen Argentinako mendi hauetan barruko indar handia behar da, buruari askotan aurrera jarraitzeko agindu behar zaiolako. Askok sufritzen da. Baina merezi du horrenbeste sufritzeak, batzuetan, sufritu arren disfrutatu egiten da eta. Guk zorte handia izan dugu eta egun zoragarriak egin dizkigu. Gora heldu ginenean sekulako panoramika ikusten zen, ingurune guztia mendiz beteta".

PODIUMA



Arazorik ez zuten izan "norbera alturara moldatu ahala azaltzen dira arazoak, baina nik ez nituen izan, jeisterakoan buruko min pixka bat bakarrik. Egia esan mendi horrek gu igo ginen aldetik ez du zailtasun teknikorik, arazorik nagusienetarikoa nekea izan zen asko ibili behar zelako, azkenengo metrotan batez ere, oxigeno falta zela eta sekulako arnas hotsen artean, hiru pauso eman orduko kantsatuta geunden eta gelditu egin behar izaten genuen".

Gerora begira, Naiarak oraindik ez du planik egin, lehenengo atzeratutako ikasketak aurrera egin beharko du, "horren arabera udako planak egingo ditut, dena dela, diru asko behar da eta joatekotan ere, ez dakit ze menditara eta noiz. Garbi daukadana, jarraituko dudala". Everestari burutik pasatu bazaio ere, oraindik gazteegia da eta aurretik beste gailur batzuk lortu beharko ditu.

◆ Euskal ligan, aurrera

Pilotako Euskal ligan jokatzen ari den Arrasateko bikote bakarrak, Korta-Zuazubiskar bikoteak, 22 eta 20 irabaziz joan den asteko partiduan Aretxabaleta ordezkatzeko zuten bikoteari. Euskal liga honen barruan, arrasatearrek datorren igandean beste partidu bat izango dute Azkoitiako "Beti Poz" taldeko bikotearen aurka.

◆ Eskubaloian bi partidu

Datorren asteburuan Arrasate Eskubaloikoek bi konpromezu izango dituzte, biak igandean: bata jubentil mailan Legazpiko La Salle taldearen aurka goizeko 11tan, eta bestea nagusi mailan Bergarako taldearen aurka eguerdiko 12.30etan. Partidu biak Iturripen jokatuko dira.

◆ Besaideren mendi-irteera

Besaide mendizale elkarteak datorren asterako, hilak 16rako, beste bat antolatu du, nafarroa aldera, Agoitz-Mendigaina. Mendi irteera horretara joan nahi dutenek, izena otsailaren 10, 11 eta 12an eman Besaide Elkarteko egoitzan arratsaldeko 7etatik 8.30etara bitartean. Ibilaldia egun guztirakoa izango da eta irteera goizeko 7etan. Bidaiaren prezioari buruzko xehetasun guztiak, Besaide Elkarteko egoitzan.

Centraljetek erraz irabazi

◆ Centraljet-Euskal Air taldeak, aurrez pentsa zitekeena baino errazago irabazi zion Barakaldoko Paulés taldeari 100-75. Arrasatearrak igoerako promozioa jokatzeke sailkatuta daude eta igotzea zaila izango bazaie ere, lanak emango dizkie gainontzeko taldeei. Neskek, berriz, galdu egin zuten liderraren aurka, 59-63, baina nahiko ondo jokatuta.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Teknologiaren irakaskuntza

Gurea bezalako gizarte teknologiko batean erraz ulertzen da teknologia zergatik pasa den lanbide hezkuntzatik oinarrizko hezkuntzara. Irakaskuntza Ertainen Erreformarekin 14 urtetaraino jeitsi zen arlo honen irakaskuntzaren hasiera eta erreformarekin, 12raino. Hezibideko ikastoletan 12-16 urte bitartean, ikasleek astean 3 edo 5 ordu ematen dituzte hain izen tekniko hartu duen arloan.

Baina arlo honen helburua ez da denak teknikari bihurtzea. *Inguratzen gaituen mundu teknikoan oinarritzko ezagupenez eta erizpide propioz mugitu eta gizar-*

tearen eraikitzaile izateko prestakuntza ematera bideratua dago gure ahalegina. Laburki esateko, beharrezko diren ezagupenak jaso eta horiek baliatzeko trebezia jantzi, egoera erreal eta eguneroko arazoetan (tekniko nahiz bestelako) jarrera aktibo eta kritikoz jokatzeko. Oinarrizko tresnak eskaintzen zaizkio ikasleari sormenez, bere buruarenganako ziurtasunez, elkarlanean, konponbideak bilatzeko.

Helburuak berak finkatzen digu horrela erabili beharrek metodoa ere. *Hain zuzen egoera errealei, arazo tekniko sinpleei, konponbideabilatzea da gure ihardunaren ardatza.* Proiektu ezberdinak taldela-

nean aurrera ateratzen dituzten bitartean, jasotzen edo ikertzen dituzte ezagupen teknikoak: marrazketa, diseinua, elektrizitatea, egiturak, indarrak, mekanika, etab. Baita antolaketa eta gestiorako ezagupenak ere: enpresa mundua, diruaren erabilera, txekeak eta bizitzan behar harko dituzten tresnak

Ez da ahantzi behar nahitaezko heziketa 16 urterekin, eta zenbaitek adin horrekin lan mundura pasatzeko erabakia hartuko duela.

Lau urtetan zehar hainbat arazo teknikori irtenbidea bilatuko zaio, gero eta zailtasun handiagoak, eduki tekniko gehiagokoak eta gero eta autonomia gehiagorekin.

Horrekin batera, teknologiaren aurrerapenak gizartearen eta munduan duen eraginari buruzko ausnarketak egingo dira. *Eta guzti hori talde lanean.* Talde lanean aritzea eta proiektuen metodologia ez dira erosoagoak direlako aukeratu. *Gure helburua ikasleak horretara hezitzea da,* horrela jasoko bait dira ekitzarako eta elkarlanerako gaitasunak; gure arloaren eta beste guztien iharduna gure hiru zutabeen lorpenera bideratua dago: gazte solidario, euskaldun eta bizitzari aurre egiteko prestatua dagoena lantzea.

AITOR SARASUA

Irakaslea eta Hezibideko Teknologia Arduraduna



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

**Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorb., 20
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58 ARRASATE**

Unidad Alavesa, Unidad Vizcaina: erdeldunak bategiten hasi euskararen kontra?

Ugaritzen eta oihartzun soziala irabazten ari da azken urteotan euskararen kontrako mezua. Probintzialismoak bideak ireki eta ondoren Buesa eta bera modukoek hariari tiratu baino ez diote egin behar eta burutik pasatu beste astakeria esan Lakuatik bertatik. Elebitasunaren izenean hitz egiten dute denek, zorioneko egoera elebiduna gaurko egoerak baino haruntzago ez daukala joaterik konbentzituta. Gaurko egoera da, euren ustez, euskararen «normaltasuna» eta ez zaie horiei inporta gaurko egoeraraino iristeko mendeetan zehar gertatutakoa. Euskaldunak ezertan hastea gehiegikeria izango da euren eritziz, daukaten statusa kolokan ikusten hasteko arrazoa. Euskaldunok ez gaituzte talde moduan hartzen, banaka ikusten gaituzte, jakinaren gainean denok dakigu-



la erdaraz. Euskaldunei buruz ari direnean individualismo linguistikoaren predikatzaileak dira. Eurontzat gura dutena ez digute guri onartzen.

Ugaritzen eta oihartzun soziala irabazten ari da, halaber, euskaldunok defentsiban jarrita ote gaudeneko eritzia. Garenok ez ote gaude nor

bere txoko murriztuan norberaren estratejiatxoa aurrera atera ezinean, elkarren kontra askotan, gorago begiratzeko adorerik gabe? Euskaldunok talde modura ikus gaitzaten, ba ote gaude egituratuta herri, herrialde eta nazio mailan?

Unidad Alavesa, Buesa, Aurelio Arteta eta halakoei ezin die aurre egin erderaren inertzia gainditzeko ahaleginik egiten ez duen ustezko euskaltzaleen erdeldungoak. Eta ezingo diote aurre egin ere lau izen handiren noizean behingo deklarazioek ere. Arazoa askoz ere sakonagoa da: ba al dago talde kontzientzia izanik euskararen lurraldean bere bizia aurrera ateratzeko adina gogo daukan giza multzorik? Hori ezean nagusitu egingo zaizkigu; euskal komunitate hori erakitzen hasita, ordea, erabat aldatzen da perspektiba.

ATALATAIKOAN

ESLU

**ileapaindegia
eta
edertze-gela**

Olarte, 18 etxabea Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea. Arrasate



HAURTOKO A

Arrasate Pasealekua 4,
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

Mineralak eta fosilak ikusgai Monterronen

Aste honetan hasi eta hilaren 29a arte, Monterroneko erakustokian mineral eta fosilez osatutako erakusketa ikusteko aukera izango da. Erakusketa, Iberdrola-rena da eta Arrasateko Udaletxeko Kultura Zerbitzuak orain hiru urte eskatu zuen. Erakusketa herriz herri ibili denez, aipatutako hiru urteko epea behar izan du Arrasatera iristeko.

Guztira, mineral eta fosilen artean, 240 ale ikusi ahal izango dira erakusketa honetan, 48 bitrinetan banatuta. Aurre-historian hasi eta fosilen garai modernoetaraino luzatzen da erakusketa. Behar bada, aipagarrienak silex-en egindako tresnak lirateke: aizkorak,



geziak etab.

Mineral eta fosilak ikusi nahi dituenak, ohizko ordutegian izango du zabalik Monterroneko

erakustokia: astean, arratsaldeko 6etatik 8etara eta asteburuan, goizeko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

◆ EKIN emakume taldea

AEDko EKIN emakume taldeak sukaldaritza eta gantxilo ikastaroekin jarraituko dute hile honetan ere. Sukaldaritza 11,18 eta 25an izango da arratsaldeko 3etan, San Andresko Torrepe Elkartearen. Gantxilo ikastaroa, berriz, 11,18 eta 25ean arratsaldeko 3etan AEDko lokaletan izango da.

◆ Heziketa Zentrua

Arrasateko Gizarte eta Famili Heziketa Zentruak, antolatutako hiru ikastaroek jarraitu egingo dute otsailaren zehar. Sukaldaritza eta postregintza ikastaroa emango du Izaskun Bagliettok eta arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara izango da. Euskal sukaldaritza zaharra nahiz berriari buruzko errezeta errezak eta merkeak emango ditu. Bestalde, eskulanetako ikastaroa Maria Pilar Uzkiainok emango du eta 6.30etatik 8.30etara izango da honi ere. Azkenik, hasera mailako kitarra ikastaroa emango du Maria Eugenia Corbachok eta besteak bezala hau ere 6.30etatik 8.30etara izango da.

LANDALUZE

JATEKO FINTEK

ITURRIOTZ KALEA, 7 • TFNOA. 79 14 86
ARRASATE

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Cruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24

◆ “Bertsolaritza geroaren aurrean”

Otsailaren 11an, asteartea, arratsaldeko 7etan, Monterron aretoan, “Bertsolaritza geroaren aurrean” izenburuko mahaingurua izango da. Hizlariak Jon Sarasua, Andoni Egaña eta Koldo Tapia izango dira, eta Jon Iñaki Izarzelaiak moderatzeile lanetan.

◆ “HIES-a: zer egin?”

Lizarra Elkarteak antolatuta datorren asteazkenean, hilak 12, Monterronen “HIES-a: zer egin?” izenburupean hitzaldia burutuko da, arratsaldeko 7etatik aurrera. Hizlaria Jose Ortiz sendagilea izango da eta bere jarduna bukatu ondoren, eztabaidarako aukera emango du.

◆ Gaztetxean kontzertua

Otsailaren 7an, ostirala, Arrasateko Gaztetxean kontzertua izango da gaueko 10.30etan. Arrasateko SS-77 eta Hondarrabiko *Beti mugan* taldeak arituko dira. Honetaz gain, joan zen astetik Nikaraguari buruzko argazki erakusketa bat dago Gaztetxean eta momentuz bertan jarraituko du.



Estibaliz Ormaetxea

Haratuzteetako kartel lehiaketaren irabazlea

Estibaliz Ormaetxeak irabazi du aurten haratuzteetako kartel lehiaketa, epai-mahaikoei berarena iruditu bait zaie onena.

Estibaliz, beste margolari askoren modura, txikitik pintatzen ibili zen, gero utzi egin zion eta heldutasunean berriro ekin.

— Espero zenuen saririk jasotzea?

— Sorpresa handia izan da, zorteak ere eragina izango zuen, noski! lehiaketak gauza arraroak dira eta gainera oso erlatiboak beti.

— Nola hasi zinen pintatzen?

— Neskati nintzenean, marrazkiak eta bordatuak egiten nituen batez ere. Horiek eskolako gauzak ziren eta gero utzi egin nuen. Urte batzuk beranduago, Cerrajeran lanean nenbilela, gela bat libre utzi zuten, nahi zuenak erabili zezan. Hori ikusita, langile talde bat pintatzen hasi ginen, oso talde majoa.

— Hortik abiatu zinen?

— Gutxi gorabehera bai, ikasten hasteko abiapuntua izan zen. Gerora, Bergaran ikastaro batzuk egin izan ditut, Artelekun litografia



eta pintura ikasten ibili izan naiz, Arrasaten bertan ere ikastaro batzuetan parte hartu dut. Horiek izango lirateke lehen urratsak.

— Eta gero zeure kontu?

— Ba, bai. Hasieran hobby txiki bat bezala hartu nuen, baina geroz eta



gehiago implikatzen joan izan naiz, gauza gehiago ikasten eta ordu gehiago sartzen.

— Zein estilotan sartuko zenuke zure pintura?

— Ez dut estilo jakinik. Oleoa erabiltzea gustatzen zait, kolorearekin maiteminduta nagoelako. Horretaz gain, paisaiak ispliatzea gustatzen zait gehienbat, gauza politak, itsusiak alde batera utzita. Etxetik kanporako lana atsegin dut, naturarekin harremanetan jarrita.

— Orduan kartelarena...

— Kartelarena oso gauza polita izan da, irudimenaren munduaren islada. Lehen ere, Arrasaten bertan lehiaketa batera baino gehiagotara aurkeztu izan dut neure burua eta baita pare bat aldiz irabazi ere, San Juanetako egitarauko ilustrazioarena azken bi urteetan, esaterako.

— Irudimenaz hitz egin duzu, zer pentsa arazten dizu haratuzte hitzak?

— Haratuzte hitzak? bada, ez dakit, jaia, poza... koloreen bilkura, azken finean. Lehiaketara aurkeztu dudak kartelak ere, zentzu hori dauka: kolorearen jaiarena.

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

ARRASATE
PRESS



77 05 65

Aste gazte

Antzina gaztaroa ez zen gizakiaren bizitzaren gradurik gorena, zaharren jakinduria lortzeko etapa garrantzitsu bat baino.

J. L. Delgado (TVE-ko aurkezlea)



Bekak

• 92ko udan Bulgarian bulgariara ikasteko bekak. Eskatzaileak: bulgariara, frantsesa edo ingelesa menperatzen duten goi mailako titulodunak edo karrerako azken urteko ikasleak. Dirulaguntza: alojamendua, mantenua, aseguruua, bidai laguntza. Epea: otsailak 28.

Lana

• Bergarako Udalaren lanpostu-deialdia: enplegu dinamizatzailea, drogomenpekotasunen prebentziorako erdi mailako teknikaria eta errenta eta ordainerazpenetarako teknikaria. Baldintzak: unibertsitateko erdi mailako titulua edo parekoren bat eta euskara (3. eskakizuna). Epea: otsailak 11.

• Eusko Legebiltzarerako liburutegirako 3 laguntzaileren eta artxibategiko lagun baten aldi baterako

akuraketa. Baldintzak: diplomatura edo balio berekoa. Epea: otsailak 13.

• Zarauzko Udal Haurtzaindegian hezitzaile lanpostu bat betetzeko deialdia. Behin-betirako kontratua. Baldintzak (titulazioa): Haurtokiez teknikari berezitua edo Magisteritzako aurre-eskolako titulua. Epea: otsailak 19.

Lehiaketak

• "Max Aub" Ipuin-Lehiaketa. Gazteleraz. Gai li-

brea. 5 eta 15 orrialde bitarteko lanak. Sariak: 250.000 PTA eta eskultura bat. Lanak aurkezteko epea: Otsailak 14.

• "Daniel Zuloaga" Kermika-Saria. Gai libre. Dotazioa: 500.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: otsailak 28.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

Abantailez betetako leihoak



PVC EDIL


Poliuretano. Bayer

PERFIL THERMIK
Sistemak.

Kalitatea



- PVC eta poliuretanozko leihoak
- Maila goreneko teknologia europarra
- PUR profil-mazizoak
- Leiho isolatzaileak (hotza, zarata, hezetasuna), etab.
- Kalitate/prezio erlaziorik onena
- Leihorik bikainenak



Lantegi eta erakustokiak:

Zentrala: Kataide industrialdea 4. Tfnoak: 77 01 57 eta 77 03 21
Ordezkaritza: Labegaraieta z/g, Tfnoa: 76 53 69

ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan etxebizitza alokatuko genuke lehenbailehen. Tfnoa: 73 04 20. Amaia.
- Etxebizitza salgai Zigarrolan. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainu gela, guztiz amueblatua. Dei egin 79 18 34 zenbakira.
- Gela alokatzen dugu ikasleen etxebizitza baten. Tfnoak: 74 00 37 eta (94) 630 85 40 / 684 16 65.
- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabilta. Logela bat libre dago. Dei egin 81 66 24 tfnora.

- 1. eta 2. REMeko klase partikularrak emateko prest (bereziki matematika, kimika, eta fisika). Dei egin 79 79 14 tfnora. Sergio.
- Klase partikularrak ematen ditugu Oinarrizko Heziketa Orokorrekoan eta euskara maila guztietan. Tfnoa: 77 04 98.
- Arrasaten bizi den ikasle batek OHoko klase partikularrak emango lituzke; baita BBB, UBI eta REMeko kimika ere. Merke-merke. Dei egin asteburuetan (94) 630 85 40.
- 7. mailako matematika eta hizkuntza klase partikularrak behar dira. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 20 40 tfnora.
- Emakume euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Dei egin 7.30etatik aurrera 79 63 29 tfnora.

- Fondoko hiru eski pare salgai. 6-8, 8-10 urte eta nagusientzat. 5, 7 eta 10 mila PTA, dena osorik. Tfnoa: 76 32 69.
- Urte t'erdiko piso bat eta kutxa erregistradora bat (3 urtekoa) salgai. Prezioa 135.000 PTA (Negoziagarriak). Tfnoa: 94 - 658 34 94 (Dei egin goizeko 10etatik 13etara).
- Yamaha SR 250 motorra salgai. 17.000 kmkin eta 230.000 PTA. Dei egin 79 62 56 tfnora 8etatik aurrera.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra salgai. Berria. Tfnoa: 79 15 54.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra eta ur-berogailua salgai. Berriak. Tfnoa: 77 06 70.

LANA

- O.H.O.ko 7. mailako matematikak eta hizkuntzako klase partikularrak behar dira Aretxabaletan. Astean hiru ordu, astelehen, astearte eta ostegunetan 6.30etatik 7.30etara. 79 41 72 telefonoan 7.30etatik aurrera. Mari Jose.
- Neskak gaixoak zaintzeko prest, etxean nahiz ospitalean: 79 69 41.
- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest neska gaztea: 79 99 17.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 77 05 47.
- Esperientzia duen neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92. Elena.
- Emakume euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Dei egin 7etatik aurrera 77 05 22 tfnora.
- Emakume euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.

SALEROSKETAK

- GAC First mobilette salgai. Dei egin 79 45 74 tfnora. Aitor.
- la berria dagoen arkoizozkailua saltzen da 65.000 PTA. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatera bitartean 94 - 682 04 83 tfnora.
- Orbea markako lasterketa-bizikleta berri-berria salgai. 25.000 PTA Tfnoa: 79 40 44.
- Txapa kalefaktorea salgai, egoera onean, baita gas naturalarentzako urberogailua ere. Tfnoa: 79 59 72.
- Colnago markako mountain bike-a saltzen da. Atzelaldean kubieta berria eta grupo osoa Shimano markakoa ditu. Oso egoera onean dago. Prezioa 50.000 PTA. Dei egin gaueko 8etatik 10etara 79 08 48 tfnora.
- Hiru mendiko bizikleta salgai. Mendiz, Otero eta Orbea markakoak. Tfnoa: 77 04 21.
- Collie txakurkumeak ditut salgai. Tfnoa: 76 64 83.

DENETARIK

- Larunbatean San Frantzisko inguruan, harribitxi landuz osatutako urrezko itxiduradun bi bueltako koilarra galdu nuen. Mesedez ekarri Arrasate Press-era.
- Gabon zaharrearantz urrezko eskuturrekoa galdu zitzaidan. Norbaitek aurkitu badu, eskertuko nioke 79 53 53 tfnora. deitzea.
- 3 txakurkume ditut erregalatzeko, oso politikak dira. Dei egin 79 66 45 tfnora.
- Zorionak Susana Bragadori. Bere anai-arreba guztiek koinatuek, aitaxok eta amatxok.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnoa.
- Zorionak Ainhoa Unamunori. Ez ezazu pastel gehiegi jan. Gero tripako mina edukiko duzu eta... Ondo igaro zure urtebetetze eguna. M. O. H. E. N-en partez.

ARRASATEN HILDAKOAK

Prudencio Redondo Rodriguez,
urtarrilaren 28an. 74 urte.

Jose Maria Iraolagoitia Larrañaga,
urtarrilaren 31n. 94 urte.

Marzela Bastida Lizarburu,
urtarrilaren 31n. 70 urte.

Nicolas Ariznabarreta Elgarreste,
otsailaren 1ean. 82 urte.

Angela Osoro Etxaniz,
otsailaren 1ean. 88 urte.

Julio Zabaleta Olabarria,
otsailaren 1ean. 73 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Libe Mendizabal Karral dendakoa



- **Errege sagarrak ala goldenak?** Gustorago errege sagarrak jaten ditut.
- **Bezeroak emakumezkoak ala gizonaek?** Emakumezkoak. Urte asko daramat lanean eta tratu gehiago izan dut emakumeekin.
- **Berdura ala potajea?** Berdura.
- **Gizonaek belarritakoekin ala belarritako gabe?** Belarritako gabe.
- **Goiz erdian ogi zati bat ala fruta?** Fruta.
- **Futbola ala txirrindularitza?** Futbola, askoz gustorago ikusten dut.
- **Uda ala negua?** Uda, neguan jertse asko jantzi behar izaten dut hotzik ez pasatzeko.
- **Naranjak ondo helduak ala hasi berri direnean garratz-garratzak?** Ni urtarriletik aurrera hasten naiz naranjak jaten, helduak daudenean.
- **Etxean edukitzeko, txoria ala katua?** Ez bata eta ez bestea, animaliak ez zaizkit gustatzen.
- **Tomateak bertakoak ala kanpotik ekarritakoak?** Bertakoak.
- **Irratia entzun ala egunkaria irakurri?** Biak egiten ditut.
- **Zubizarreta ala Arkonada?** Zubizarreta, noski.
- **Sagardoa ala errioxako ardoa?** Noizbehinka sagardoa, baina ardoa gustorago.
- **Barazkiak egosita ala egosi gabe?** Letxuga ezik, gainontzekoak egosita nahiago ditut.
- **Kotxe on bat ala motor handi bat?** Kotxe on bat.
- **Inbernaderoko letxugak ala freskoak?** Freskoak.
- **Pelikula bat ikusi ala nobela bat irakurri?** Biak egiten ditut.
- **Jateko, azalorea ala zarba?** Zarba.
- **Entzun ala hitzegin?** Nik asko hitzegiten dut, eta entzun ere bai.
- **Saltzeko, urdaikiak ala barazkiak eta fruta?** Fruta.

Bertsotan

Santa Ageda-ko koplak

Urtero legez Otsailarekin
Santa Ageda helju da
ta Arrasate Pressek berpiztu
behar du koplak ohitura.

Kopla ta kantua entzuten da
baserri eta kalean
herrietako mutil gazteak
hasiak dira eskean.

Ingurutako herritakoei
jada heldu zaie txanda
Atxabalta ta Eskoitzakoek
izango dute parranda.

Arrasateko dirua ez da
izango juergetarako
hemen eskea joango bait da
helburu on baterako.

Arantzazu Arroiabe



Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



Kanpazar 1925

Orain pagopeko atsedentoki den bezala, erromeria leku ohizko izaten zen Kanpazar. Aste honetarako aukeratu dugun argazkia 1925ean

ateratakoa da esan digutenez, eta argazkiko guztiak hilik omen daude. Galdezka ibili eta argazkiko kuadrilatik ezagutu ahal izan dituztenak hauek dira, goiko ileran ezkerretik hasita: Anton Azkoaga "Txanbau", Bixente Arregi "Sagardotegi", ezezaguna, Dionisio Mondragon "Erregetxo" eta Juan Resusta "Karrikirri".

Bigarren iladan ezkerretik, Martin Aranbarri, Jose Ramon Mendizabal, Agustin Agirrebeitia, ezezaguna, Jose Azkoaga "Txanbau", Felix Errera (?), Nikasio Gonzalez "Nikas Txiki" eta ezezaguna.

Lurrean eserita, Santos Uriarte "Fatti", ezezaguna, Luis Ubago, Eleuterio eta Luis Zarraoa.

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65




Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

Gurutzegrama




Horizontalak

- 1. Bulego
- 8. + 10= Arrasateko dantza talde bat
- 9. Garai
- 10. Ikus 8
- 12. Bi erdi
- 13. (Ald.) Omen
- 14. Basagurbeak (zuhaiskak)
- 17. Galdera
- 18. (Ald.) Izpi

Bertikalak

- 1. Galdetzeko partikula
- 2. Aspertu
- 3. Oherarazi
- 4. (Ald.) Zegoen
- 5. (Ald.) Eusko Alkartasunaz
- 6. Emakume izena
- 7. (Ald.) Eskalea
- 11. Asian, herri errepublika
- 12. Baieztatzeko
- 15. "O" gehituz, Nafarroako Udala
- 16. Gehiegi



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Nire ama sorgina

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: otsailak 8, larunbata


Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta


Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Andoni Urzelai



Pako Altube

Aldaketa ATBn

Batzuk joan, beste batzuk etorri. Andoni Urzelai atxabal-tarra, telebista hau gauzatzen hasi zen egun beretik gure artean egon den teknikaria, Eskoriatzara joan zaigu, Majisteritza eskolako ikus-entzunezkoen arloan lan egitera.

Berak utzitako hutsunea Pako Altube mondrauetarrak beteko du aurrerantzean.

Zorte on, Andoni; eta aupa, Pako!



ATB SHOW-a:

• Otsailaren 13an, osteguna, 7.30etan

Programa, aurkezle, bideoak eta ideia berrien aurkezpena. Eta gainera...

• Eskola Piliteknikoko Areto Nagusian:

Bertsolariak: J. SARASUA, A. LOIDI eta J. I. IZARZELAIA

RUPER ORDORIKA eta TAPIA trikitilaria

Programazioa

9

IGANDEA

9.15etan, **Mondragol**. Mungia-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena. Jon Andueza eta Jose Luis Ezkurraren eskutik.

10

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, **Mondra Sport**. Arrasateko kirol-munduaren errepasoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribesalgorrekin.
9.45. **Asteko zinea**: Ehun metro.

11

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
9.15. **Erreportaiak**. Aste honetan, Gaztetxeari buruzko lan bat, eta Gesalibarreko jaiei buruzko beste bat izango dituzue ikusgai.
9.45. **Asteko zinea**: Ehun metro.

12

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albistegia.
9.15. **Txatxaran**. Maider Egués-ek zuzendutako elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Begofia eta Juan Luis Lekunberri, abeslariak.
9.45. **Asteko zinea**: Ehun metro.

13

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Albistegia.
9.15. **ATBketan**. Anne Igarburuk aurkeztutako lehiaketa berri eta ikusgarria.
9.45. **Asteko zinea**: Ehun metro.

14

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Informatiboa.
9.15. **Ostiral Musikala**: Marta Izagirrek zuzenduta, Arrasate Musikali eskainitako saioa.
9.45. **Asteko zinea**: Ehun metro.

Telebegi

ATBoom!!

Azkenean badator. Aspalditxoan hasi ginen ATBren programazio berria iragartzen eta zenbat urrats ere dagoenekó emana dugu. Baina datorren astelehenerik aurrera programazio berria bere osotasunean hasiko da. Eguneroko informatiboa, orain arte bezala, baina txukunagoa, beteagoa eta jantziagoa eta gero asteko egun bakoitzean programa bat. Dagoeneko ezagunak diren *Mondrasport*, *Erreportaiak*, *Txatxaran* eta *Ostiral Musikala*. Eta guzti horiei "ATBketan" konkurtso berria, Arrasateko kuadrilak jolasean ipiniko dituen programa gehituko zaie.

Eta azkenik zinea, euskal eta mundu osoko zinea. Euskaraz ikusi ezin izan diren pelikula famatuak eguneroko ATBn.

Guzti honekin frogatuko da ATBren finkotasuna, azken hilabeteotako lanaren ondorioz gauzatu dena.

Gustokoa izango duzuelakoan, on dagizuela.

MIKEL IRIZAR

Haize berriak dituzu.

RENAULT KONTZESIONARIetan.

Mires ezazu Renault 19 Wind serie berezia.

Imagina dezakezun ekipamendurik osotuenaz*, eta serie berezi bateko aukerarik zabalenez. 3, 4 edo 5 atekoen artean aukeratu ahal izango duzu, eta motore aldetik, 65 CV diesel-ekoetatik 107 CV gasolina injekziokoetan artean.

Zatoz hurbilen duzu Renault kontzesionarira eta eskura ditzakezun eskaintzen berri emango dizugu. Zuretzat bereziki pentsatutako eskaintzak. Haize berriak goza ditzazun.

Zatoz eta ikusi.

RENAULT 19 BERRIA

WIND

SERIE BEREZIA



LINTAS

* Bertsioen arabera



MECA TAILERRAK S. A.

Araba Etorbidea. Tfnoak: 79 59 99 / 79 59 09 ARRASATE